

# BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure bezeroekiko harremana mota askotarikoa izango da. Gure motibazio nagusiak bezero eta kontsumitzaile berriak lortzeko ahalmena eta bezero horiei eustea dira, salmenta kopurua handituz.

Alde batetik harreman zuzena edukiko dugu salmenta puntuetan. Bertan, bezeroei sortzen zaizkien zalantza guztiak argituko dizkiegu eta eskuragarri izango dute informazio oro. Bestalde, webgune bat sortuko dugu eta bertan ere datu guztiak izango dituzte, galderak erantzuteko sailarekin batera. Gehien errepikatzen diren galderen sorta bat egingo dugu eta haien erantzunak automatikoki emango zaizkie bezeroei, horrela zerbitzu automatizatu bat eskainiz. Ezohiko galderak egiten dituzten pertsonen aldez, laguntza pertsonala eskainiko diegu gure telefono zenbakia eta korreo elektronikoak web orrian txertatuz edozein unetan sortutako dudak dituztela ere, gurekin harremanetan jartzeko aukera izango dutela adieraziz, beraien konfiantza geureganatuz.

Behin gure produktua erositakoan, erosketa-ondorengo zerbitzu bat izateko aukera eskainiko diegu erosleei. Modu honetan, produktuarekin edozein arazo zein ezbai izanez gero, aurretik aipatutako antzeko zerbitzu bat emango diegu. Gainera, produktuak izandako matxurek ekoizpenarekin zerikusirik balute, garantia eskainiko litzaike gure salmenta-puntuetan, prezio estandarrei gehigarri bat ipiniz.

